



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2009-03-26**

VIIURTEA 1.663.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

BADATOR KORRIKA

TOLOSALDEA - LEITZALDEA Gaur abiatuko da Tuteratik; Leitzaldera etzi iritsiko da, eta Tolosaldera apirilaren 2an

AURTENGOA Gurera etorri eta euskara ikasi dutenak edota galdu eta berreskuratu dutenak omentzen ditu 4



Aintzane Goenaga eta Jaione Rodriguez (AEKko irakasleak) eta Lierni Alkorta (Tolosaldeko Korrika arduraduna) atzo, Lizardi elkartearen Korrika 16ren aurkezpen ekitaldian. I.T.

Ordaintzea da Pako Larrañaga Espainiaratzeko hurrengo pausoa

ALEGIA 12.500 euro ordaindu beharko lituzke bere familiak, baina berak ez du ordaintzerik nahi, «ez baitut inongo deliturik egin» 7

«Euskal Herria nazioa dela aldarrikatzeko» hurrengo irteera Bizkaian, Nerbioi inguruan

Arabako otsoak eta Gipuzkoako hontzak nor baino nor, Beterriko final handian

IBARRA Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari ekimenak antolatuta, hilaren 29an 6

BERTSOLARITZA Etzi izango da Beterriko Bertsolari Txapelketako finala 3

LIBURUA SALGAI

Salmenta:

Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:

5 liburu 80€
10 liburu 140€

Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburudendetan,
- Ibarako Lurdes liburudendan,
- Villabonako Basajaun liburudendan.



«Bidasoako euskaldunak batu nahian» aurkeztu dute Behe Bidasoako HITZA

Hedabideak » Atzo aurkeztu zuten egunkari berria Hondarribian, gizarte eragileekin eta euskalgintzarekin batera.

ERREDAKZIOA

«Bela zabaldua, haize firinda batek lagunduta, badoa aitzina...» dio Zura taldeak abestietako batean. Atzo Hondarribian entzuan ahal izan zen bossa nova euskaraz abes-tera ausartzen den taldea, *Behe Bidasoako Hitza*-ren aurkezpen ekitaldian. Lehenago hitza hartu zuten ordezkarien adierazpenetan izan zen Zura taldearen metafora hori baliatu zuenik, *Behe Bidasoako Hitza* belak zabaldua aurrera doan ontzia dela nabarmenduz, itsasoratu dena azkenik, ibaiaren bi aldetako euskaldunak batuz.

Horixe nabarmendu zuen, zehazki, Koldo Nausiak (Hondarribia, 1982), egunkariaren zuzendaria: «Euskara da Bidasoa ibaiaren bi ertzetako jendeak lotzen dituen elementu komun bakarra. Ildo horretan, azken urteotan eskualdean Antxeta Irratiak eta Bidasoa Mediak euskararen olatua eragin dute, eta orain, olatu hori hartzera eta indartzera dator HITZA. Elkarrekin itsasoratu gara, elkarlanean».

Elkarlanaren garrantzia

Elkarlanaren garrantzia nabarmendu zuen Joanmari Larrarte EKTko kontseilari ordezkariak ere. Behe Bidasoakoa zortzigarren HITZA dela gogoraraztearekin batera, guztietan tokian tokiko euskara elkarteekin eta gizarte eragileekin elkarlanean mamitutako proiektuak direla nabarmendu zuen. «Azken urteotan, euskarazko komunikabideak sortzeko eta sendotzeko bideak zerbait erakutsi baldin badigu, aurrera egiteko elkarlana ezinbestekoa dela izan da», adierazi zuen Larrartek.

Pausumedia elkarteko kide Urko Ikardok, berriz, Behe Bidasoan HITZA sortzeko beharraren eta horren ondorioz elkarlanean egindako bidearen nondik norakoak azaldu zituen. Estibalitz Alkorta Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusiak ere hartu zuen hitza, besteak beste, euskararen normalizazioan HITZA bezalako egitasmoek duten garrantzia nabarmenduz.

«Jende asko, amets asko»

Behe Bidasoako euskalgintzako eta gizarte eragileetako hainbat laguna bildu zen aurkezpen ekitaldian. «*Muita gente, muitos sonhos, muitas esperanças*» abestu zuen Zura taldeak ondoren, eta horixe nabari zen atzo Hondarribian: jende askoren ametsa, hitz bihurtuta.



Joan Mari Larrarte, Koldo Nausia eta Iban Arregi atzo, *Behe Bidasoako Hitza*-ren Irungo erredakzioan. BEHE BIDASOAKO HITZA



Astelehenean hasi zen erredakzio lan-taldea zortzigarren HITZA egiten. Interneten egongo da egunero irakurgai.

Betaurreko berriak



» Iritzia

Koldo Nausia
Behe Bidasoako Hitza'-ren zuzendaria

Groenlandiako inuitek hamabost hitz ezberdin baliatzen dituzte guk txurizat jotzen duguna esateko. Elurra eta izotza topatzen dute nonahi begiratzen dutela, eta aldaketarik txikienak ekar ditzazkeen arriskuak hobeki interpretatzeko berezko betaurrekoak jartzen dituzte egunero. Izan ere, beren hizkuntza gorpuztutako betaurrekorik gabe ezingo bailu-

kete errealtatea behar bezala ulertu.

Gure Behe Bidaso eskualdetxiki erraldoi honetan, aldiz, hiru betaurreko ezberdin ditugu elkarbitziten. Eta mugarririk ez dagoenez, norbanakoak egin beharra du hautua.

Kontua da, orain arte erdara izan dela eskualdean aukera bakarra informatzeko garaian. Haatik, azken urteotan euskararen betaurrekoak indartzera etorri dira gurera Antxeta Irratia edota Bidasoa Media bezalako tokiko komunikabideek. Baina betaurreko arrotzek guk nahi bezala inoiz enfokatu ez badute ere, milaka euskaldun dira oraindik informatzerako garaian gaztelaniara ala frantsesera jotzen dutenak.

Zentzu honetan, korrika ez bada ere, *Behe Bidasoako Hitza*-ren

erronka nagusia bidasoatarron hautua emeki euskaraz bizi nahi dugunon herrira erakartzea da. Ez da ahuntzaren gauerdiko ez tuzta izango.

Baina egunkari batek esan deza keena eta bermatu beharra duen pluraltasun izaera oinarri izanik ere, erredakzio bulego baten lau hormetatik kanpo dagoen mundua begiratzeko erabiltzen dituen betaurrekoak ere garrantzitsuak dira.

Horregatik guztiagatik, ongi begira ezazue goitik behera, ezkereskuin, eskuarte duzuen. *Behe Bidasoako Hitza* egunkariaren lehen zenbakia da. Zuen ingurua, zuen herria inoiz ez bezala bitzetzeko eta ulertzeko aukera eskainiko dizuen euskarri berria.

Ongi etorri! Eta gogora ezazu... zurea dela hitza!

Laburrak

'The reader' filma ikusgai Leidorren, asteburuan

TOLOSA » Kultura sailak antolatuta, asteburuan zinema proiektzioa izango da Leidor aretoan. Hain zuzen ere, *The reader* filma emango dute: bihar 22:30ean, igandean 19:30ean eta 22:00etan eta astelehenean (ikuslearen eguna) 20:30ean.

Oteizari buruzko proiektzioa ikusgai, bihar

TOLOSA » Iskandar Rementeriarren eskutik *Oteiza y el centro cultural Alhóndiga. Proyecto estético para la ciudad de Bilbao* izeneko proiektzioa izango da ikusgai, bihar, Leidor aretoan 19:30etik aurrera. Sarrera doakoa izango da.

Harizperen irteeretan parte hartzeko aukera

TOLOSA » Harizpe jubilatuko elkarteak antolatutako irteeretan izena emateko aukera dago oraindik, elkartetik jakinarazi dutenea. Hain zuzen ere Galizara (maiatza) eta Platja de Arora (ekaina) egingo dituzten irteerak lekuak daude. Izena elkarrean bertan eman daiteke.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbol: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Beterriko saria otsoentzat edo hontzentzat izango da

Kultura » Etzi jokatu da Bertsolari Txapelketako finala Urnietan; Araba eta Gipuzkoa izango dira aurrez aurre, lehian.

ERREDAKZIOA

Bihar erabakiko da zeintzuk izango diren Beterriko Bertsolari Txapelketako aurtengo irabazleak: Arabako otsoak edo Gipuzkoako hontzak.

Gipuzkoa ordezkatuz, Jokin Labayen, Uxue Alberdi eta Ander Lizarralde ariko dira bertsotan. Araba berriz, Iñaki Viñaspre, Manex Agirre eta Andere Arriolabengoak defendatuko dute.

Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako bertsolariak hartu dute parte bigarren aldi honetan. Zozketa bidez erabaki zen, talde bakoitza noiz lehiatuko zen, eta zeinen aurka. Lehendabiziko kanporaketa Amasan jokatu zen eta Gipuzkoa Nafarroaren aurka aritu zen. Bertan, etxeok izan ziren garaile. Bigarren kanporaketa berriz, joan den asteburuan jokatu zen Zizurkilen, Araba eta Bizkaikoak izan ziren orduan protagonista. Orain, bi kanporaketako irabazleak izango dira aurrez aurre.

Azken saiorako txartelak oraindik ere eskuratu daitezke Iluntzeko zortzi eta erdietan emango zaio hasiera biharko saioari. Urnietako Oianume jatetxean izango da hau. Antolatzaileek adierazi dutenez oraindik bada txartelak afaritara joateko. Urnietan, Oianume jatetxean bertan,



Lehen kanporaketan Gipuzkoa izan zen garaile, eta bigarrenean, Araba. HITZA

Iñistorra Biltzarren eta Aiurriren egoitzan, Kantoi tabernan eta Urnietan frutadendan eros litezke. Andoainen, Larramendi Bazkunaren egoitzan eta Stop eta Ernaitza liburudendetan. Villabonan, Basajaun liburudendetan eta Ogi-goxo okindegian. Telefonoz ere le-

kua gorde daiteke 943 30 07 33 zenbakira deituta. Aurreko saioetan bezala, bapo afaltzeko aukera izango da 25 euroen truke. Sabela bete ostean, bertsolarien txanda izango da, hauek, afalostea alaitzen saiatuko direlarik, beraien doinu eta errima biziak.

Mendekotasunari aurre egiten ikasteko aukera berriro ere

Gizartea » Osasun eta Gizarte Zerbitzuek egitasmoarekin jarraitzeko eta jendea informatzeko bilera bat antolatu dute.

ERREDAKZIOA

Martxan da adinduentzat, Mendekotasunari aurreko egiteko egitasmoa. Bertan hamabost pertsona ari dira parte hartzen eta Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako egiten duten balorazioa erabat baikorra da. Hori dela eta, beraien asmoa da laster beste talde batekin lanean hastea.

Egitasmoaren inguruko informazioa zabalteko asmoz, datoren astehenean, hilaren 30ean,

Euskal Herria plazan kokatzen den Gizarte Zentroan, bilera egingo dute, 15:30ean. Saioa irekia izango da eta nahi duen oro hurbildu daiteke bertara.

Aipatutako batzarrean, parte-hartzaileak ezagutzeko aukera izango da. Beraiekin hitz egin eta iritziak ezagutzeko bide ere izango da batzarra. Aldi berean, han izango da begiralea, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako arduradun politiko eta egitasmoa martxan jarri duen arduradun tekniko.

Egitasmoaren nondik norakoak Mendekotasunaren prebentzio kanpainaren helburu orokorretako bat da 70 urte baino gehiago dituzten adinekoen bizi kalitatea hobetzea. Baita, etorkizunean men-

dekotasuna eragin dezaketen gorabeherak ekiditea. Izan ere, datuak adierazten dutenez, gero eta zaharragoa da biztanlegoa. Bestalde, asko dira bakarrik bizi diren adinekoak, eta honek ere zenbait aldaketa sortzen ditu.

Egitasmoarekin lotuta antolatzen diren jarduerak izena eman duten pertsonen arabera egokituiko dira. Hala, proiektua aurrera doan heinean aldatu egin daitezke jarduerak. Interesatuak, ondorengo jardueretan parte hartu ahal izango dute: mantenu gimnastika, memoriaren tailerra, eskuzko terapia, prentsa tailerara eta jolas tailerra.

Astelehen eta asteazkenetan banatuko dira jarduerak, denak goizez izango direlarik.

Laburrak

Izaskun Jimenezen erailketa salatuko dute

GIZARTEA » Bilgune Feministak elkarretaratzera deitu du Izaskun Jimenez tolosarraren erailketa salatuko. Bihar, 19:00etan egingo dute agerraldia, San Frantzisko elizaren aurrean. Euskal Herrian, aurtengo indarkeriaren ondorioz hil den lehendabiziko emakumea da. «Emakumeon aurkako indarkeriari aurre hartu! Erasorik ez erantzunik gabe! Matxismoak hiltzen gaitu!» lelopean bilduko dira beraz, bihar.

Minbiziari aurre egiten laguntzeko, loteria salgai

GIZARTEA » Gipuzkoako Minbiziaren urkako elkarrekin urtero bezala, martxan jarri du AECC-ren aldeko loteria kanpaina. Aurtengo, apirilaren 18an egingo da zozketa. Boluntarioen sareari, eta Gipuzkoako etxeko andreen langile elkarteari, merkatal eta banku entitateei esker, Gipuzkoako puntu ezberdinetan jarri dituzte salgai txartelak. Tolosaren kasuan Laringektomizatuen elkarrekin (Adinekoen egoitzan) eskuratu daitezke.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserria - Santio Zaharra

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.sidrerriaakelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergobiatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martutene pasealekua, 139

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnietan
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Osiñaga auzoa

Urdaira Tel.: 943 372 691 Aginaga-Usurbil
Urdaira baserria

Otatza Tel.: 943 801 757 Zerain
Otatza baserria

Urbitearte Tel.: 943 180 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zerain
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegisagardotegia.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ikaztegieta
Iturrioz baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Garagartza baserria www.rzabala.com

Aburuza Tel.: 943 692 452 Aduna
Goiburu auzoa, Olatza etxea

Sarasola Tel.: 943 690 283 Asteasu
Bebailara auzoa

Zalbide Tel.: 943 652 176 Abaltzisketa
Zalbide baserria

Eguzkitza Tel.: 660 654 317 Tolosa
Usabal auzoa, 25

Erreka Tel.: 948 510 625 Leitza
Erreka auzoa

DIEZ Autobusak

Autobusak eta autobusaren zerbitzu berria
Kontu hau erabiltzeko klikatu
Informazioa, zerbitzuak, iturriak, argazkiak...
Mundakal kalea, 24 / Tel.: 943 28 84 16 / Fax: 943 27 11 27 / 28013 DONOSTIA
Pasaia 28013 DONOSTIA

ONGI ETORRI KORRIKA!

Euskara » Gaur abiatuko da Korrika 16 Tuterarik; Leitzara etzi iritsiko da 16:30ean, eta Tolosaldean, berri, apirilaren 2an sartuko da 10:41 aldera.

INGO TERAPIAK

Gaur abiatuko da 17:30ean Korrika 16 Tuterarik, eta apirilaren 2an Gasteizera iritsi arte ez du etenik izango. Alfabetatze Euskarluntze Koordinatzaileak (AEK) Euskal Herri osoan zehar egiten duen euskararen aldeko lastertera erraldiak egiteko zuzendutako proiektuaren parte da. 2.350 ikasleekin eguneroko lana indartzeko dirua bilzteko izango du ohiko moduan heldu behar. 2.350 ikasleekin eguneroko lana indartzeko dirua bilzteko izango du ohiko moduan heldu behar. 2.350 ikasleekin eguneroko lana indartzeko dirua bilzteko izango du ohiko moduan heldu behar.

ten ekitaldien berri eman zuten. Horretaz gain, aurtengo Korrikarako egiten duten dokumentalaren aurkezpena eta abestia ere ezagutzeko aukera izan zuten bertaratu zirenak. Urtero bezala, aurtengo Korrikak ere mezu bat zabaltzen ari da. «Ongi etorri», horixe da Korrikak lehen mezu bat zabaltzen ari dena. «Ongi etorri» horixe da Korrikak lehen mezu bat zabaltzen ari dena. «Ongi etorri» horixe da Korrikak lehen mezu bat zabaltzen ari dena.



Aintzane Goenaga, Jaione Rodriguez eta Urtzi Alkorta atzo Lizarrdik elkarban egindako aurkezpena...

«Ongi etorri» horixe da Korrikak lehen mezu bat zabaltzen ari dena. «Ongi etorri» horixe da Korrikak lehen mezu bat zabaltzen ari dena. «Ongi etorri» horixe da Korrikak lehen mezu bat zabaltzen ari dena.

«Ongi etorri» horixe da Korrikak lehen mezu bat zabaltzen ari dena. «Ongi etorri» horixe da Korrikak lehen mezu bat zabaltzen ari dena. «Ongi etorri» horixe da Korrikak lehen mezu bat zabaltzen ari dena.

du ondoren, geroa errekorperatu eta egun euskara irakasia da. Bani, beriz, Alperzik da Parteen euskaldun bat ezagutu zuten, eta ondorioz, Euskal Herria eta euskararen etorri zen. Jon Mari euskara izan zuten ama hizkuntza, baina Gasteizen bizi eta gero galdutako egin zuten; baina, euskaldun eta abertzale sentitzen zuten, eta horrek egin zuten euskara ikastea. Azkenik, Txerria, galiziarra da, eta Bilbon jaioa da, baina hizkuntza irakastea behar zuela jakinda euskara ikasi zuen.

«Bidaia intimok» Aurtun, ordea, abestiaz gain, abestirik ez duen abestia ere badu Korrikak. Hain zuzen ere, **Bidaia Intimok** dokumentala Jon Mariak zuzendutako bertan, lau bidaia intimok aurkezten dira, lau pertsonaiek egindakoak. Protagonistak «euskara» bizi nahi dugunon herria etorrikoak dira. Mixela Lapun Jaino zen, eta gurentzat euskara galdutakoak dira.

» EKUALDEKO EGITARAUA

- Aduna**
- **Apirilak 2, osteguna.** Korrika pasa ostean, herriko eskolan festa eta jolasak, eta eskolatik ateratzean, merienda garrituz, herriko elkarrekin eskolatik.
- Alegia**
- **Martxoak 26, gaur.** Bidaia Intimok dokumentala, 19:00etan, Kultur Etxean.
- **Martxoak 29, igandea.** Hamalasteko eta arropen postu jarriko dute herriko plazan, 12:00etan.
- Aitzo**
- **Apirilak 2, osteguna.** Korrika Txikia egingo dute eskolan eta ospatzen merienda eskolako zale haurren.
- Amezketza**
- **Martxoak 27, bihar,** 19:30ean, 4873m Basakabotik 3 kilometro

- Film Laburren Zirkuitua, erabilerarik gabeko gelan.
- Araoa**
- **Martxoak 28, larunbata,** 11:00: Bidaia Intimok dokumentala, udal-telebista, 12:30: Arropen postua, herriko plazan; 14:30: Bazkari herrikoa, 19:00: Trikitijotze, 23:00: Kontzertuak Gaztetxean.
- Areso**
- **Martxoak 26, gaur,** 15:30ean soinetako gelan, bideo emanaldia, Bidaia Intimok.
- **Martxoak 27, bihar,** 15:00etan, Korrika Txikia, Ondoren, merienda Pake-Toki elkartean, Areso Eskolako haur, irakasle, guraso eta nahi duen on, herria zehar korrikari itengo dira.
- **Martxoak 28, etzi,** 17:26an, 4873m Basakabotik 3 kilometro

- Goizuetako bidetan pasako da Korrika. Ibilbidean, autobusa.
- Ibarra**
- **Martxoak 27, bihar,** 17:00etik 19:00etara: arropen postu Ibarra-ko San Bartolomeo plazan.
- **Martxoak 21, asteartea,** 19:30ean, Bidaia Intimok dokumentala, Kultur Etxean.
- Izarategietza**
- **Martxoak 27, bihar,** Bidaia Intimok dokumentala, herriko ostian, 20:00etan. Ondoren, afari herrikoa.
- **Martxoak 28, etzi,** Mus ibagelketa herri ostian, 17:00etan.
- **Apirilak 2, osteguna.** Korrika igaro ostian hamalasteko eskolako haurren.
- Iruia**
- **Apirilak 2, osteguna.** Korrika

- Inurara iritsi aurretik Herriko Plazan hamaitakotako.
- Leizta**
- **Martxoak 26, gaur,** 19:30ean izango da ikusgai Bidaia Intimok dokumentala. Peritz tabernan.
- **Martxoak 28, etzi,** 11:30: Umeentzako jolas plaza; 12:30: Pintxoak herriko plaza; 16:30: Ongietoria Korrikari Leitzara sarreran (inguruarate parean); 17:30: Herri kantua; 18:30: Herriko elkarrekin ezberdinek prestatutako, Musika Eskolako aretoan; 16:30: Herri kantua, poteoa eta euskal abestak kantatuz.
- Zizurkil**
- **Apirilak 2, osteguna.** Bazkaria, eta gero, 15:00etan, Korrika Txikia herriko plazan amaituko delarik. Ondoren, ipuin kontalaria. Arropen postua ere jarriko dute.

- **Apirilak 2, osteguna.** Korrika herriko pasa ostean, 12:30ean, hamaitakotako izango da Triangeluan (gurea egiten bada, Zerkausian).
- Villabona**
- **Martxoak 28, larunbata,** 11:00etan: Bidaia Intimok dokumentala Musika Eskolako aretoan; 12:15an: Ume eta haur jolasak herriko plazan, Amasako gazteak eta Onddo gazte asanbladakoek prestatutako; 13:30: Bazkari herrikoa, herriko elkarrekin ezberdinek prestatutako, Musika Eskolako aretoan; 16:30: Herri kantua, poteoa eta euskal abestak kantatuz.
- Zizurkil**
- **Apirilak 2, osteguna.** Bazkaria, eta gero, 15:00etan, Korrika Txikia herriko plazan amaituko delarik. Ondoren, ipuin kontalaria. Arropen postua ere jarriko dute.

Bertsoa eta jazz, inprobisazioaren eredu argienak, eskutik hartuta

Euskara » 'Bertso Jazza' ikuskizuna izango da etzi, Leidor aretoan ikusgai; Musika eta bertsoa uztartzen dituen saioa da.



Bertso Jazzean arloko diren protagonistetako batzuk. N. LOZARTEA / HITZA LEITZALDEA

EREDAKIOA

Euskararen baitan, ekitaldi berezia antolatuta dute etzira, **Bertso Jazza**. Musika eta bertso elkarrekin doaz ikuskitzen bertze izateko honetan. Emanaldia 22:00etan hasiko da, eta Leidor aretoan izango da. Bertarako sarean www.jazza.net eta Serbituaren, Teledunaren edota Leidorreko lehiatzen eskuratuhalako dira. Fasa den urteko Donostiako Jazzaldian estrainatutako emanaldia da **Bertso & Jazza**. Bertarako prestatu zuten lana, baina izandako harroa eta josteko eskariak kontuan hartuta, proiektuarekin segi eta ideta garatzen jarraitzea erabaki zuten. Hala, urte batez behintzat **Bertso Jazza** ikuskizuna eskaintzea pentsatu zuten. Beraz, Donostiako Jazzaldian bida berri eta esperimentaziozko urrats bat eman zen arren, «musika eta bertsoaren arteko soka estutu, lotu, tenkatzu, zibatu, azkartzu» jarraituko dute 2009ko uda bitartean. Denbora tarte honetan, 12 emanaldi inguru egiteko asmoa dute, eta hain zuzen ere, estreinaldia da Tolosaldea.

Inprobisazioa ardatz

Munduko inprobisazioan oinarritutako bi kultur adierazpen garantzisuenak elkarrekin egongo dira oblatzen emanaldi honetan.

marxoaren 26an denok Tuterara www.korrika.org

æk

Tutera-Gasteiz 09 marxoaren 26tik apirilaren 5era

korrika badator!

» **DATUAK**

- **Ikuskitzuna.** Bertso Jazza.
- **Eguna eta ordua.** Etzi, 22:00etan.
- **Leitua.** Leidor aretoa.
- **Sarearak.** www.jazza.net, Teledun, Serbituaren edota Leidorreko lehiatzen, 10 euroren truke.

harpidedun izateak badu saria

2 lagunentzako otordua Isastegi Sagardotegian

4 liburuz osaturiko sorta

3 sarrera emanaldirako Benito Lertxundi

2 sarrera erromerirako Oñabi bidearekin

Parte hartzeko deitu edo idatzi: 902-82 02 40 / txokoa@hitzaz.info (harpidedunen kodea eskura duzula) Gaur, osteguna, 19:00etatik 21:00etara, Txokoa ikusgai izango da bertan.

ISASTEGI Sagardoarekin

Aldabak-Txiki, 15A Tel.: 943-65 29 64 • TOLOSA (Gipuzkoa)

Udaberri Dantza Txokoearen eskutik **afaria eta dantzialdia Oñabi bidearekin**

Apirilak 4, larunbata • Tolosaldea Zerkausian

harpidedun TXOKOA HITZA

» **MENDIZALEEN IRITZIAK****Zergatik hartzen duzu parte 'Euskal Herrian zehar, Geurea Ikurrina!' lelopean antolatutako mendi irteeretan?**

«Belaunaldi desberdinak elkartzen gara»

Eugenio

Belaunaldi desberdinak elkartzeko aukera eskaintzen du; helduek gure esperientzia transmititzen diegu gazteei eta guk gazteen freskura jasotzen dugu.



«Irteeretara joatea txortan egitea bezalakoa da»

Josu

Herrialde desberdinetako mendi irteera hauetara joatea txortan egitea bezalakoa da. Behin probatuta hurrengo irteeraren hasten naiz pentsatzen.



«Jende ezberdinarekin hitz egiteko aukera ematen du»

Oihana

Jende desberdinarekin gai ezberdinetaz hitz egiteko aukera ematen dute irteera hauek. Paraje ederrak ikusteko parada ere izaten dugu.



«Ilgandearako plan bikaina da»

Iñaki

Ilgandearako plan bikaina dela iruditzen zait. Reala? Jada aspertu naiz Anoetara joan eta sufriztearekin, hobe da izerdi pixka bat botatzea.



«Txoko zoragarri pila bat ezagutzeko aukera dugu»

Edurne

Euskal Herriko txoko zoragarri pila bat ezagutzeko aukera ematen dute irteerak. Bertakoa baloratzen ikasi behar dugula iruditzen zait.

«Euskal Herria nazioa dela» aldarrikatzeko mendi irteerak

Ibarra » Igande honetan, hilak 29, Bizkaira joango dira Nerbioi Ibaiaren jaiotza ikustera; ibilaldia 3-4 ordu ingurukoa izango da.**ERREDAKZIOA**

Ibarrako Haitzetan Rajumendielkarteak eta Bai Euskal Herriari ekimenak mendi irteera ugari antolatu dituzte Euskal Herriko herrialde desberdinetan zehar.

Euskal Herrian zehar, geurea ikurrina! lelopean horixe egin dute

mendi desberdinetan; ikurrina lau haizeetara zabaldu. Hurrengo irteera igande honetan izango da, hilak 29; 08:00etan aterako dira Ibarrrako plazatik eta Bizkaira joango dira Nerbioi Ibaiaren jaiotza ikusteko. Ibilaldia erraza izango dela diote antolatzaileek eta 3-4 ordu iraungo dituela. Hurrengo irteera apirilaren 26an izango da; Arabako Kantabriako mendikatera.

Maiatzaren 23an eta 24an, aldiz, Zuberoako txanda izango da eta asteburu pasa egingo dute.

Antolatzaileek esandakoaren arabera, ikurrinaren aldarrikapena ezinbestekoa da, izan ere, «Nafarroan ikur ilegala bilakatu nahi dute bandera espainiarrarekin



Zarauztik Debara egindako irteeraren irudia. A. IMAZ

sentimenduak aldatu nahian. Lapurdi, Behe Nafarroa eta Xiberuan ikurrina elementu folkloriko bezala saltzen digute. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ikurrinaren alboan espainiar bandera ezartzen digute Euskal Herria beraien menpe dagoela aldarrikatuz».

Euskal Herriko herritarrak

«Ikurrinak Euskal Herriko herritarrak biltzen gaitu, Euskal Herria nazioa da, bere buruaren jabe izan eta etorkizuna erabakitzeko eskubidea duen nazioa da. Euskal Herriko mendi berdeetan barnean milaka herritarrek erresistentzia eta iraultza gorri baten alde lanean dihardu txuriak sinbolizatzen duen bekean amesten, justiziako bakea. Ez gara ez espainiarrak eta ezta frantsesak, gora Euskal Herria!», gaineratu dute.

Bukatzeke «herri gisa pentsatu, eztabaidatu, lan egin eta bizitzeko» deia ere luzatu dute irteeretako antolatzaileek.

Laburrak**Aldaketak ostiraleko pilota partidetan****IRURA** » Irurako pilotalekua inauguratzeko ostiralean egingo dituzten partidetan aldaketa bat egon da. Ongay pilotaria aritu ordez Mikel Goñik jokatu du. Hauek izango dira, hortaz, bikoteak: Galarza V-Arruti eta Mikel Goñi-Galarza VI.**Gimnastika Erritmikoko Txapelketa larunbatean****IBARRA** » Larunbatean Ibarrako Belabietan Gimnastika Erritmikoko B mailako eskola arteko Txapelketa izango da. 11:00etatik aurrera alebinak eta haurrak ariko dira eta 16:30etik aurrera benjaminen topaketa izango da.**Ohiko Osoko Bilkura egingo dute ostiralean****IBARRA** » Udalak jakinarazi duenez, ohiko Osoko Bilkura egingo dute ostiralean 09:00etan. Besteak beste Julian Gayarreko plaza berriren lanen inguruan eta Loatzeko Mankomunitatearen Estatutuen aldaketaz hitz egingo dute.**Ikastaroen inguruan hitz egiteko bilera, gaur****BELAUNTZA** » Belauntzako Udalak deituta Aste Santuen ondoren hasi eta sanjoan bitarte iraungo duten ikastaroak aukeratzeko bilera izango da gaur 19:30ean Kultur Etxean. Ikastaroak astean behin edo bitan izango dira.**Apirilak 8, zirkulazio zerga ordaintzeko azken eguna****IKAZTEGIETA** » Ikaztegieta Udalak 2009ko zirkulazio zergari dagokion ordainagiriak ordaintzeko epea apirilaren 8an bukatuko dela esan du. Helbideratuta dauden ordainagiriak apirilaren 8an kobratuko dituzte kontu korrontetik.**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da**hilberriak
urteurrenak
eskertzak**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Pako Larrañaga espainiar kartzeletara eramateko hurrengo pausoa, ordaintzea

Alegia » Presoak ez ditu 12.500 euroak eman nahi «ez baitut ezer egin», baina familia prest dago ordaintzeko.

ERREDAKZIOA

Pako Larrañaga Filipinetako kartzela batean dagoen alegiar jatorriko presoak Espainiako espetxe batean zigorra betetzeko baimena jaso du. Baina presoak zuhurra izan nahi du: «Gauza asko gerta daitezke, biktimen bi familiak erabakia oztopatzen saia daitezke eta».

Filipinak eta Espainiak, bi herrialdeek lortu duten hitzarmenaren ondorioz Espainiaratuko dute, baina Larrañaga bera zuhur agertu da: «Biktimen bi familiak erabakia oztopatzen saia daitezke. Lasai egon beharra daukat», adierazi du. Baina onartu du ere, «gero eta urduiago» dagoela aukera berri honen aurrean.

1997an Cebu hirian bi ahizpa bahitu, bortxatu eta erailteaz leporatzen diote Larrañagari eta 2004an heriotza-zigorra kondenatu zuten. Hala ere, 2006ko ekainean heriotza-zigorra baliogabetu zuten Filipinetako Gloria Macapagal presidenteak, eta heriotzako itxarongelatik atera zuten Larrañaga. Honek beti esan du errugabea dela, erasoan egunean Manilan zegoela, gertaeretatik 600 kilometro, hain zuzen ere. Gaur egun, Montilupa herriko kartzelan dago, Bilibiden.

12.500 euro inguruko kalte-ordaina jarri zioten, baina ez du bere

familiak hori ordaintzerik nahi, «nik ez bainuen delituri egin».

31 urte ditu Larrañagak, eta lehen bailehen nahi du Espainiara joatea, «2010ean izango direlako Filipinetako hauteskundeak eta Gobernu aldaketa gerta daitezkeelako».

Kartzelan duela 12 urte

Larrañaga Filipinetan dago preso duela dagoeneko 12 urte eta erdi. Egotzi diotena, 1997an gertatutako bi emakumeren bahiketa, bortxaketa eta erailketa dira. Espainiako Gobernutik jakitera eman dute «dena bukatuta dagoela. Pako Larrañaga Espainiara eramateko eguna aurki izango da, azkar. Dena bere familiaren eta presoaren beraren esku dago: haiek erabaki beharko dute nola eta noiz egin».

Bilibideko kartzelaren egoera

Larrañaga Filipinetako Bilibideko kartzelan dago gaur egun. «Bertako diziplinara ohitu naiz urteen poderioz eta baita bertako baldintza txarretara ere. Horregatik ez zait kostatuko Espainiako kartzeletara ohitzea, une hori iristen denean. Jartzen nauten lekuan jarrita, prest nagoela iruditzen zait. Orain artekoan nahikoa eta soberan jasan behar izan dut».

Larrañaga Bilibideko kartzela deskribatu zuen: «Oso zaharkitua dago, seguritate handia dago eta presoak pilatuta daude. Baina 500 preso inguru gaude orain eta eurek nirekiko duten errespetua eta begirunea irabazita daukat». Bertan, bere espazioa dauka eta egur batzuekin isolatu zuten. «Nire brigada osatzen duten guztiak Cebuko-

ak dira eta iritsi nintzenezan 100 bat ginen. Gaur egun, 480 gaude».

Kondenaren bat bete behar duten pertsonen lekualdatzeari dagokion ituna Madril sinatu zuten, Espainiako eta Filipinetako Gobernuak 2008ko maiatzean, hain zuzen ere.

Hurrengo pausoa, ordaintzea

Espainiako Gobernuak Pako Larrañagaren gurasoak modu batera estutu egin ditu, lekualdatzea lehenbailehen egin dezaten. Zehazki, erail zituzten bi emakumeen familiei kalteak ordaintzea eskatu zuten (12.500 euroak), Larrañaga preso Espainiara lehen bailehen eraman ahal izateko.

Manuel Larrañaga eta Margot Gonzalez Pako Larrañagaren gurasoekin hitz egin zuten Espainiako Gobernuak. Han, Filipinetako Gobernuak herenegun presoak Espainian kondena betetzeko baimena eman zuela adierazi zien. Beraz, orain familiak eman beharreko pausoa 12.500 euroak ordaintzea izango da, sententziak dioten moduan. «Espainiako barne ministroak gauzak mesedez lehen bailehen egiteko eskatu digu».

Diru hau familiak ez dauka une honetan, eta gainera presoak «kaudimengabea dela alegatu dezakegu, baina aukera honi heltzen badiogu prozesu judizial berri batera eramango liguke eta ondorioz, Espainiaratzeko bidea oztopatu». Presoaren aitaren ustetan, «ez zait beste familiari inongo aukerarik eman behar, gurea baino indartsuagoa baita. Dena ordaintzea nahiago dut, ikusiko dugu nola».

Espainiako barne ministroak ez

» KRONOLOGIA

■ **1997 uztailak 16.** Cebun bi neska erail zituzten, bahitu eta bortxatu ondoren.

■ **1997ko irailak 16.** Pako Larrañaga atxilotu zuten, bi nesken erailketa egotzita.

■ **1999ko maiatzaren 5a.** Larrañaga betiko kartzela zigorrera kondenatu zuten.

■ **2004ko otsailaren 3a.** Heriotza zigorrera kondenatu zuten epailetan. Ondorioz, familiak laguntza eskatzen du Euskal Herrian eta Espainian.

■ **2005eko maiatzak 15.** Larrañagak EBri laguntza eskatzen dio.

■ **2006ko ekaina.** Gloria Macapagal Filipinetako presidentek heriotza-zigorra baliogabetu zuen Filipinetan. Ondorioz, Larrañaga heriotza itxarongelatik ateratzen da.


■ **2008ko maiatzak 18.** Espainiako eta Filipinetako Gobernuak presoaren lekualdatzeari lotutako ituna sinatu zuten.

■ **2009ko martxoak 24.** Filipinek presoaren Espainiaratzea Espainiara.

du oraindik zehaztu noiz Espainiaratuko duten Larrañaga, ezta zenbat urte egin beharko dituen kartzela berrian, baina ziurra dena da, 30 urteko kondena dela Espainian aplikatu dezaketen zigorrrik luzeena. Epe hau motzagoa izan daiteke presoak egonaldian jarraia onazanez gero.

Espainiak eta Filipinek 2007an sinatutako akordioak diotenaren arabera, presoaren lekualdatzea egiten denean, kasuen errebisioa ezin da egin.

Familiak adierazi duenez, «Pako ondo dago, fisikoki eta siko-logikoki prest dago Espainiako kartzela batera joateko, baina, guk espero dugu ez denbora askorako izatea».



Usabiaga benjamin. E. EZEIZA

Olaberria eta Usabiaga, pistako Munduko Txapelketan

Txirriindularitza » Espainiako selekzioarekin joan dira; «Esperientzia hartzea» du helburu nagusia Usabiagak.

ERREDAKZIOA

Pruszkow-en (Polonia) dira Leire Olaberria eta Ana Usabiaga pista txirriindulariak. Oraingoan Munduko Txapelketan aritzeko joan dira. Cespa Euskaditik bost txirriindulari ariko dira. Urteko txapelketa garrantzitsuena da eta «ilusioz beteta» daude txirriindulariak.

Leire Olaberria ikaztegiatarrak hobetzen jarraitzen du; azken testek hobetu jarraitzen duela adierazi dute. Banakako jazarpenean, Scratch-en eta puntuazioan ariko da.

Ana Usabiaga benjaminaren helburu nagusia «esperientzia hartzea» izango da. Taldekako jazarpenean ariko da.

Orokorrean, maila altua espero dute Munduko Txapelketan, Londresko Olinpiar Jokoei dagoeneko begira baitago jendea.

Intxurreko jubenilen gol zakua



Jubenilen taldeak 6-2 irabazi zuten azken jardunaldian, lidertza duen taldearen kontra. P. RENOBALDES

N. URBIZU

Alegiako Intxurreko jubenilek pozik egoteko arrazoiak dituzte. Izan ere, azken jardunaldia 6-2 irabazi zuten, Lasarte-Oria liderraren kontra jokatu ondoren. Taldekideen artean, are eta gusturago izango da Alain Arandia, bost gol sartu

baizituen. Kadeteek ere irabaztea lortu zuten, 5-2, Internacional taldearen kontra jokatu. Honela, 5. postuan dira kadeteak.

Ez dute zorte bera izan futbolari nagusienek, lurraldekakoek, hain zuzen: 3-1 galdu zuten Irungoen aurrean, eta 1-2 galdu ere, Gaztea-

ken kontra. Tarte gutxi zuten bi partiden artean eta hori nabaritu da. Edozein kasutan, dagoeneko bakean daude, hau da; astebururo partida bat jokatu beharko dute. Azken bi emaitza hauek sailkan nagusian 7. postura jaitsi ditu alegiarrik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Beti alai
jatetxea

Garaian garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



14°
4°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 15°
HOTZENA 6°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Legedagailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoeta/leizaola@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibarra/leizaola@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko ideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Kirolak

■ **Irura.** Pilotalekuaren inaugurazioa ostiralean Titin III.a-Laskurain eta Gonzalez-Barrila bikoteen arteko partidarekin. Sarrerak salgai 20 eurotan herriko tabernetan.
■ **Villabona.** Aizkardi mendi elkar-teak 41. Ibilaldia antolatu du hilaren 29rako Andatza, Adarra eta Leitzaran inguruan. Ibilbide luzea (46 km, 10 ordu, 6:30ean abiatuta) eta motza (22 km, 5 ordu, 8:00etan abiatuta). Informazioa: 649 717 182,

ibilaldia@aizkardi.com helbide elektronikoa.

■ **Amarotz.** Amaroako Auzo Elkar-teak IX. Araxesko Mendi Itzulua antolatu du apirilaren 5erako, 6:00etan abiatuta, 9-11 orduko proba, doan. Izen-ematea, 656 00 89 57 (Jose Mari) telefono zenbakira deituta, auzoetxe@hotmail.es helbidera idatzita edo irteeran.

Deialdiak

■ **Albiztur.** Etzi, Adunako Aburuza sagardotegira irteera autobusez,

ondoren Hernanira joateko aukerarekin. Afaria eta autobusa, 33 euro. Izen-ematea, udaletxean.

■ **Leaburu.** 55ko kintoen festa apirilaren 4ean Leabururen meza eta bazkaria bertako Ostatuan eginez. Izen-ematea, 943 671548 telefono zenbakian.

■ **Tolosa.** Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko proba libreak aurki izango dira Tolosan. Izen-ematea Tolosako HHIIn eman beharko da izena, eta azterketa maiatzaren 20an izango da, asteazkenean, EPAko egoitzan bertan.

■ **Tolosa.** La Serena bailaran jaiotakoek eta bere ondorengoek festa eta bazkaria izango dute igandean La Jara Extremadurako Etxean. Izen-ematea, 943 675419 edp 675 707619 telefonoetan (20 euro).

■ **Tolosa.** Bihar Iskandar Rementeriaren Oteiza y el centro cultural Alhondiga. *Proyecto estético para la ciudad de Bilbao* proiektioa Leidor

aretoan 19:30tik aurrera. Sarrera doakoa da.

■ **Tolosa.** Bihar, Positiva eta Lords of bukkake (BCN) musika taldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

■ **Tolosa.** Bihar, Bertsolar HITZA Desafioa: Alegia vs. Altzo. 21:00etatik aurrera Alegiako Gaztetxean.

Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkar-teak antolatu irteera hauetarako lekuak gelditzen dira: Asturias (hilaren 23), Galiza (maiatza) eta Platja de Aro (ekaina). Izen-ematea, elkar-tean.

■ **Anoeta.** Alkartasuna biltokiak Baztanera bidaiatu antolatu du apirilaren 16rako, ostegunarekin: kobazuloak, likore-fabrika, gaztandegia eta txokolategia bisitatu, ondoren bazkaria. Bazkaria eta autobusak, 28 euro bazkideentzat (30 euro ez denarentzat). Izen-ematea, biltokian bertan.

Erakusketak

■ **Hernialde.** Argazki kameraren erakusketa. ikusgai herriko ostalduak apirilaren 6ra arte. Ondoren Urtzi Batisen lanak jarriko dituzte.
■ **Tolosa.** Oteiza, *bizirako proiektua* izeneko erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian, martxoaren 28ra arte.

Zinema

■ **Tolosa.** *The reader* filma emango dute asteburuan, Leidor aretoan: bihar 22:30ean, igandean 19:30ean eta 22:00etan eta astelehenean (ikuslearen eguna) 20:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943672438.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Laida Lasa Nieto (Laskibar).

Gure ahizpa jaio da! Ongi etorri! Muxu ttiki bat.

berriarekin

Munduko
ZINEMA
euskaraz

Best film:
Boroboro3 Mountain
Ekuldeko promesak
Guztaren seme-aitabak
Ezizulduz plaze
Lorezin leiala

Maitasun istorioak,
zientzia fikzioa,
akzioa...
Bilabeteko zinema

Otsailaren 28tik aurrera,
larunbatera, zure kioskoan BERRIAREkin

+ 4,90€

Harpidedunentzat: biEsuma 050a 19.40€
Eskaria egiteko: 943-29.42.45

berria

Maestro de Oz

KONTZERTUAN

APIRIK 4
24:00

25€ AURRETIK 28€ LEIHATILAN

SALMENTA PUTUAK: TICK-TACK-TICKET

Iruñeko TABERNAK: ONKI MIN / BLACK ROSE

TOLOSA: ZUNBELTZ

LEKUNBERRI: ILARGI ETA AKER

sala
muxu

Antolatzailea: yaluna

Laguntzailea: DN

www.salamuxu.com

Lekunberri